

Biste urdinak

Txillardegi

ATZO bildu zen Donostian biste urdinen manifestazioa Alderdi eder-en ondoko Udal-etxaurre nagusian, balkoietan behera eskegita, oihalezko Aurdin erraldoi bat ikus zitekeen. Telesaiotan frogatu ahal izan dugunez, jende pila joan da manifestari, berrogei-ta-hamar milatetik gora omen. Orain arte maila eta harrokeria horretan sekula ezagutzen ez genuen propaganda ofizial azkarrak bere fruitua eman du: "algarada callejera" eta "chusma borreguil" delakoak mespretxatzen dituzten alderdi dotore eta aretozaleek, oraingoan ahalagin gaitza egin dute "la rue nous appartient" esan al izateko.

Donostiara jendeka erakartzeko leloa, egokia izan da: "Iglesias askatu", euskaraz ere bai! Inginadore saiatu bat horren luzaz bere nahiaren aurka bahitzea, nork ez luke berorren askapena eskatuko? Guk ere bai, jakina. Bahiketa honen sustrai politikoa arakatu eta azalduko den ber. Bestela ez, noski. ETA-k, guk bezala, inperialismo hispano-frantsesaren amaia eskatzen du, eta burujabetza Euskal Herriarentzat. Gaurko legekeria hispano-frantsesak ez du autodeterminazio eskubidea onartzen. Zer diote honetaz bisteazaleek?

Euskaldunok geure burua español aitorzen badugu, eta espainiar projektua geure egiten badugu, orduan prest omen dago madrilera demokrata agertzeko (eta gauza bera Iparraldeari dagokionez Parisko gobernua, simetria osoan). "Omen" diogu; zeren-eta demokraziaren lehenengo baldintza herriei autodeterminatzeko eta bereziteko eskubidea onartzea baita. Euskal Herrian ez dago gaur demokraziarik; jaita-aste "Etat de droit" delakoa aipatzen bada ere. Euskaldunontzako "enbutuaren legea" besterik ez dago. Bortxa abertzalea kontra-zapaketa hutsa da.

Estatuak ozenki Euskaldunon eskubidea aldarrikatu eta bideratuko ez dueno (autodeterminazioa eta independentzia lortzeko eskubideak legeztatuz, beraz) herri honetan nekez mamituko da bakea.

Iglesiasen gertakaria inguramendu politiko horretan kokatzen ez bada, irailaren 11ko manifestazioa (eta bilduko diren beste hamaika ere berdin) alferrik izango da. Gure herriaren parte handi batek, erosokeriak alde batera uzteko prest dagoenak hain zuzen, independentzia nahi baitu; espainiar proiektu osoa arrotz eta interesgabe zaiolako. Iglesiasen askatasunik eza

Gauza bat behar dugu orain: egia latz hau aurrez-aurre ausarki begiratzeko bertutea.

orrotarazten da: bi hilabetez askatasunik gabe eta bere nahiaren aurka. Baina Torre Altonaga abertzaleak aurki beteko ditu 15 urte gartzela espainoletan, bere borondatearen aurka; eta gauza bertsua 5 eta 10 urte gerotzik presondegiatan eta deportazioan usteltzen diren borrokakideek. Herri honi autodeterminatzeko eskubidea onartuko balitzaio, hau guztia ez litzateke gertatuko. Estoniarrek Errusiarekiko senditzen zuten berbera senditzen dugu abertzaleok gure herria zatitzen eta okupatzen duten Estatuekiko. Gakoa hemen dago.

Eta zer esango, burdingintzaren krisia dela-ta, Bizkaian eta gainerakoetan lanera joan-ezinean ere, kale-gorrian eta bizimodurik gabe, gelditu diren milaka langile zoritxarrekoetz? Iglesias lanera normal ezin joatea

gaitzesten dutenek, txintik ez dute ateratzen langabetuen ezintasunaz. Zergatik ez dute deus esaten Calvo-ren heriotzaz? Ertzaintzaren kalabozoetan hiltzea ez al da hiltzea? Zer diote biste urdinekoek ikastolen sarearen desegintzaz? Zer diote "Egunkaria"ren kontrako jokoaz? Zer diote unibertsitatean Gorostiaga, Etxebarria eta gainerako irakasle abertzaleen kontrako jokoaz? Noren eta zeren zerbitzutan balio gabetu dira lortutako akordioak? Nork erabaki du Donostiak bere zezen-plaza gosta-ala gostarik izan behar zuenik? Nork isilarazi ditu makina txanpon-jaleen eta azpijoko itsusien arazoak? Irailaren 11ko manifestazioa giro horretan mamitu eta antolatuta da, eta ez beste ezertan.

Biste urdinak Bloc anti-abertzale adierazten du; eta gure herriak jasaten duen zapaketa "demokratikoa" izkutatzea du helburu. Biste urdinak ez du Iglesiasen askatasuna adierazten. Hegoaldeko instituzio politikoan espainiarikuntza eta ustelkuntza, hitz batez, aurrerago joan dira egun negargarri hauetan. Eta gaur egin daitekeen galdera zuhur bakarra, hauxe da: ustelkeria kirats horretan, instituzio espainizale eta arotz horietan, zer espero dezake abertzaleak? Galdera bera egin zen frankismoaren garaian, eta ez kolaboratzea erabaki zen. Zer espero daiteke gaur egun erabat salduta dauden instituzio autonomiko "régionale" horietatik? Bada garaia, ene ustez, galdera larri hauek errotik aztertzeko; eta beldurrik gabe ondorioak ateratzen hasteko. Ez baitaigu hau historian lehenengo aldiz gertatu. Alegia, "gure" instituzioak, mila saldukieraren ondorioz, osoki BEREN tresna bihurturik egotea. Gauza bat behar dugu orain: egia latz hau aurrez-aurre ausarki begiratzeko bertutea.



Urruña, l'alternative abertzale

■ «Gure Herrian», journal d'Herriarrak, groupe abertzale d'Urruña, vient de sortir son n° 12. Cette publication toujours très vivante, collant bien au terrain local, revient sur l'affaire de l'Utxin, le procès en diffamation que lui a intenté Daniel Poulou, le député-maire, la révision du POS, le travail de son élu au conseil municipal, Beñat Elizondo... Gure Herrian sacrifie aussi aux petits échos qui font le sel des éditions de ce genre. Le journal de Tartaro apprécie particulièrement la croustillante chronique de Mari Kutzu qui, en quelques touches incisives, met à nu la petite histoire du village, du genre: «Vu le budget... Remboursez!».

Manifestation des "rubans bleus" à Donosti

EN TRE 50.000 et 80.000 personnes selon les estimations ont défilé à Donosti, le 11 septembre (notre photo de couverture). Elles réclamaient la libération de l'industriel Julio Iglesias, enlevé par ETA depuis plus de deux mois, afin d'obtenir le versement d'une rançon.

La manifestation s'est achevée par un meeting au nouveau stade d'Anoeta: rejet de «la violence comme instrument politique et en soutien aux institutions démocratiques» en fut le thème essentiel.

Une minute de silence et un lâcher de colombes ont clos la journée.

De très nombreuses personnalités du monde du sport, de la culture, de la politique rassemblées autour d'une "initiative civique" avaient lancé un appel pour ce défilé remarquablement bien couvert par les médias.

Partis politiques espagnols et basques (hormis HB) ainsi que syndicats soutenaient cette démarche.

Migel Yriarte inculpé le 10 septembre pour "association de malfaiteurs". Il avait été interpellé au début de la semaine dernière à Ivry dans la région parisienne ainsi que cinq autres personnes, libérées par la suite. La police française considère qu'ils font partie d'un réseau d'aide à ETA pour la collecte de l'impôt révolutionnaire. Le responsable présumé de ce réseau, Carlos Almorza Arrieta, avait été mis sous les verrous, le 6 août à Paris.

EGA diploma. Euskaltzaindiak Iparraldeko bizilagunei EGA eskuratzeko parada bi aldiz urtean eskaintzen die: ekainean eta urrian. Idatzizko azterketa urriaren 9an iraganen da, 9etatik 12^{1/2} arte. Izena emaitako azken epea: urriaren lehena. Euskaltzaindian 37 Panneau karrika, Baiona, 59.59.45.59 edo AEKn, 17 Pontrique karrika, Baiona, 59.25.76.09.

SUR VOTRE AGENDA

- **Samedi 18 septembre, 17h1/2, DONOSTIAN**, manifestation pour la négociation (HB). Voitures au départ de Baiona (St-André) 16h. Patxa/Oldartzen.
- **Les 18 et 19 septembre, BIARRITZEN** (chapelle impériale) journées du patrimoine.
- **Irailaren 19an, 12etan, ARBONAN** (Arantzola) Iparralde eguna (EMA, Herri Batasuna, Guk, Jon Bergaretxe, bideoak). EMAk antolatua.
- **Irailaren 19an, 12etan, DONIBANE LOHITZUN-ZIBURUko estropadak.** 3ème régates de trainières.
- **Irailaren 19an, 9etan, SALBATOREN** (Iratiako bidean, Mendibetik) «Bortuaren eguna». Ibilaldia, ondokik jan-edana, animazio eta erakusketa.
- **Irailaren 20 eta 27an, 21^{1/2}etan, UZTARITZEN** (Bilgune aretoa) bilkura, Lapurtarren biltzarra besta antolatzeko.
- **Du 18 au 25 septembre, HITZA PITZ** «Festival des conteurs». Le 18, HAZ-

- PARNEN**, 11h^{1/2}, les contes au marché. 15h (groupe scolaire J. Verdun) la foire aux contes avec C. Doat et B. Bauer. Le 18, **HELETAN** (Gastetxea) 21h, René Martinez et Susana Azquinez. Le 19, **BARDOZEN** (cinéma) 16h^{1/2}, Mamadou Diallo. Le 20, **HAZPARNEN** (patio d'Elizalde) 19h, apéro-contes avec Mamadou Diallo et D. Holmes (percussions). Le 21, **HAZPARNEN** (Elizalde) 19h, apéro-contes avec Jean Bourdin et Biliagarroak (txistu). Le 23, **DONAMARTIRIN** (Kosteletea) 21h, veillée en euskara avec Koldo Amestoy "Ibarxolan", comédiens, chanteurs, peinture en direct, xirula, ttuntun, sagarno, taloak... Le 24, **HAZPARNEN** (Elizalde) 19h, apéro-contes avec S. Azquinez et J. Merah (guitare). 21h, Abbi Patxi, B. Chèze (percussions) et la compagnie musicale Hatsa bi.
- **Jusqu'au 26 septembre, 21h, BIARRITZEN** (palais des festivals) «Le temps d'aimer». **Du 16 au 19**, ballet Victor Ullate avec la création "Tsunami" d'après une légende basque. **Les 21 et 23**, ballet théâtre de Bordeaux.

- **Jusqu'au 26 septembre, URDIÑARBEKO bestak:** Akelarre, Oskorri(19an), Minxoriak, etabar.
- **Jusqu'au 30 septembre, 18h, BIARRITZEN** (Atalaye) symposium de sculpture "en public" avec animation musicale.
- **Jusqu'au 30 septembre, 14h-19h, IZURAN** (Haize berri) exposition «Euskaldunak eta Amerika». Le 17 à 21h, les vidéos du père Cachenauf sur ce thème.
- **Jusqu'au 30 septembre, BAIONAN** (salle Ducéré, bibliothèque) exposition sur l'artiste gipuzkoan Julio Beobide.
- **Euskarazko klaseak** segitzeko Hendaiaiko AEK euskaltegian, izen emateak: "Ongi etorri" etxea, 11 rue du Commerce, 64700 Hendaia, tel. 59.20.55.30, irailaren 20atik 24era (9tik 12ra/14tik 20ra) eta irailaren 27tik urriaren 1era (9tik 12ra/14tik 18ra).

notre couverture: 80 000 personnes, selon certaines estimations, à Donosti pour la libération de Julio Iglesias.